

ISTRIPUEN JARDUERA-PROTOKOLOA

Osasun-laguntza lortu ahal izateko, ezinbestekoa da pauso hauek ematea:

1. Mapfren duen 24 orduko telefonora deitu behar da, istripuaren abisu emateko.

918 366 190

- Lokuzio bat entzungo da:

Bienvenido a MAPFRE, servicio específico para la Federación Vasca de Montaña. Le informamos de que por su seguridad y para garantizar una correcta prestación del servicio, esta llamada puede ser grabada.

A continuación se va a reproducir una información sobre protección de datos. Si ya la conoce y no desea volver a escucharla, por favor, pulse 1.

- Espedientea irekitzeko egiten den deia, pertsona batek kudeatuko du.
 - KASU GUZTIETAN: **POLIZA-ZENBAKIA (055-1980000015)** kontuan izan behar dugu, telefonoko agenteari esateko.
 - Datu hauek eman behar dira telefono-deian:
 - Federatuaren datu pertsonalak
 - Data eta zelan gertatu den istripua
 - Istripu non gertatu den
 - Kalte fisikoak
 - Deia irekiaren bukaeran, agenteak honako hauek emango dizkizu:
 - **Espediente-zenbakia**: gorde egin behar da, eta istripu-agiriaren goiko aldean idatzi behar da.
 - Hurbilen dagoen osasun-zentroa zein den.
2. Min hartu duen federatuak lehenbailehen bete eta sinatu behar du adierazitako zentroetan emango dioten **“istripu-agiria”**. Zentroak agiririk ez badu edo istripua atzerrian gertatu bada, istripu agiria EMFren webgunean, lurralde-federazioetan eta Adartian (94 661 34 97) eskuratu daiteke.
 3. Sinatutako agiria posta elektronikoz bidali behar da lehenbailehen honako helbide honetara, mezuaren gaian espediente zenbakia zehaztuta:

daper.mapgen@mapfre.com

4. Min hartu duen federatuak itundutako osasun-zentrora joan behar du, eta istripu-agiria behar bezala beteta eraman behar du. Osasun-laguntza jasotzeko, ezinbestekoa da 24 orduko telefonoan eman dioten espediente-zenbakia agertzea agirian.
5. **HIL EDO BIZIKO LARRIALDI kasuetan**, larrialdiko laguntza jaso ahal izango du osasun-zentro hurbilenean. **MAPFRE VIDAk** ordainduko ditu istripua gertatu eta lehenengo 24 orduetan emandako larrialdi-laguntzari dagozkion fakturak.

Behin larrialdiko lehen laguntza eman ondoren, min hartu duen federatua itundutako osasun-zentro batera eraman behar da, tratamenduarekin jarraitzeko. Lesionatuak itundu gabeko osasun-zentroan gelditzea erabakitzen badu, MAPFRE VIDAk ez ditu faktura horiek ordainduko.

Mapfreren polizan bermatutako osasun-laguntza MAPFRE VIDArekin ituna duten espezialistek eta osasun-zentroek emango dute.

BAIMENAK

Hurrengo probak eta tratamenduak egiteko, konpainiaren baimena beharko da aurrez:

- Diagnostikorako proba bereziak (TAC, RMN, ekografia, artroskopia, gammagrafia, etab.)
- Ebakuntza kirurgikoak
- Errehabilitazioa

Kasu horretan, aseguratua edo osasun-zentroak baimena eskatuko dio MAPFRE VIDArri posta elektronikoa honetan: daper.mapgen@mapfre.com.

Aipaturiko baimenari medikuaren txostenaren kopia erantsi behar zaio, eta bide beretik emango da eskatutako proba edo tratamendua baimendu edo ukatu egin dela adierazten duen jakinarazpena.

Aseguratua ordaindu beharko du konpainiaren baimenik gabe egindako beste edozein proba edo tratamenduren kostua.

ADARTIA Correduría de Seguros – Tlfn. zenbakia **94 661 34 97** – emf@adartia.es

- Edozein kontsulta edo laguntza behar izanez gero, Adartia Aseguru Korreduriari deitu beharko zaio, EMF-ren federatu gisa identifikatuz
- Kontuan izan beharrekoa da Mapfrek emandako Espediente Zenbakia